



# EURIAK BUSTITAKO KIROL ASTEA

Euria eginagatik ere Alegiako Kirol Astearen baitan antolaturiko saskibalo txapelketan gogoz aritu ziren atzokoan > 6

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Igandea  
2008-05-25**

VIURTEA 1.443.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Anoetako gazteek kalejira egin zuten atzo arratsaldean, Gazteen Egunean. N. GARZIA

## ORDU GUTXI BARRU AGUR ESANGO DIETE HERRIKO JAIEI

**ANOETA** Atzokoan gazteak izan ziren protagonista Gazteen Egunean; Elustondotarren emanaldiak itxiko ditu gaur aurtengo jaiak > 7

**EDURNE PASABAN ETA ASIER IZAGIRRE** MENDIZALEAK

«Bertako jendearekin lortzen duzun harremana izaten da gure bidaien onena»

**TOLOSA** Dhualagiri tontorra egin berri duten bi mendizaleek irakurleen galderak erantzun zituzten zuzenean, elkarrizketa digitalean > 4-5



Leitzan, Euskal Herrien arteko euskal jokoen V. jaialdia egin zuten. N. GARZIA

## Kulturaren harira, ekitaldi ugari bi eskualdeetan

**TOLOSALDEA-LEITZALDEA** Leitzan, Albizturren eta Lizartzan gaur amaituko dira kultur asteak > 6

haénip  
ocws  
tedá

**elduaen**

**LUDOTEKA UZTAILEAN**  
INGELESEZ JOLASEAN  
4-12 URTE BITARTEKOENTZAT  
GOIZEKO 9TIK 13AK ARTE

**IKASTARO TRINKOAK**  
EKAINA-UZTAILA-ABUETUA  
EGUNERO 1, 2 EDO 3 ORDUKOAK

**TOLOSA:**  
Martin Jose Iraola 8-e ez / 943 670052 – 943671275  
Kondeaneko Aldapa, 30 - 943 674733  
Nafarroa etorbidea, 12 Behea – 943 670052

## Zertan da gure nobleza?



» **Iritzia**

**Patziku Perurena**  
Uzturretik

**L**eizatik Tolosa bitarte honetan noble asko izan denez, ikus dezagun pittin bat, mendizale hamalau horien ohoretan.

Gaurko jendea pozik da den bezelaxekoa izateaz: zoriontsu

da, hori da gaurko hitz santua. Nobleza ordea, beti eske ari zaio bere buruari; baina zoriontsuak ez dio deus eskatzen, aski baitu bera denarekin. Noblezia eskakizun bidez definitzen da, zereginen bidez, ez eskubideen bidez. Goethek hala esaten du: «gustura bizitzea jende xeheari dagokio: nobleak ordena eta legea ditu gogoko». Nobleziaren pribilegioak jatorriz ez ziren mesedeak, konkistak baizik.

Bai, zinez amorragarria da «noble» hitzak izan duen zentzu galearra. Izan ere, oinordekotza «odol noblezia» adierazten duenez, eskubide komunak antzeko zerba

bihurtzen baita, kalitate egonkor eta pasibo, gauza arrunt gisan eman eta hartzen dena. Baina berezko adiera, «noblezia» hitzaren etimologia, funtsez dinamiko da. Nobleza finki saiatuaren kide da.

Semearen oinordeko noblezia, ordea, jadanik ondare hutsa da. Semea noble da, aita saiatua zelakotz, beraz, oinordeko nobleziak esanahi hauspeztua du, ispiluko argia da. Bere baitan gelditzen zaion gauza dinamiko bakarra, arbasoak lortu zuten ahalegin mailari eustea baitu. Dena den, adiera higitu honetan ere: noblesse oblige. Lehen nobleak bere burua obligatzen du, noble

oinordekoa, ordea, oinordekotzak berak obligatzen du. Nolanahi ere kontraesana dago noblezia ondorekoengana igaro ahal izate horretan. Txinarrak aldeantzez egiten dute, semeak, noblezia lortzean, gurasoak nobleztzen ditu, zenbat eta ahalegin noble haundiagoak egin, orduan eta gizaldi gehiago atzera.

Baina, «Noblezia» ez da hitz formal gisa agertzen Erromako Inperioa arte, eta hain zuzen ere, ordurako gainbehera zetozen oinordeko nobleziari kontrajartzeko.

Niretzat noblezia, bizitza saiatuaren sinonimoa da, bere burua gainditzeko beti prest dagoenarena, denetik izan nahi duenera igarotzea eginkizun duenarena. Halakoentzat bizitzea betiereko ten-

sioa da. Gizon nobleak ez du bere burua benetan osaturik sumatzea lortzen. Gure eguneko gizon arruntari, ordea, ez zaio burutik pasa ere egiten bere betetasuna zalantzan jartzerik.

Zorrotzak doi-doi ergelizateko zorian harrapatzen du beti bere burua. Ergelak berriz, ez du bere buruarekiko susmo txarririk: oso burutsua dela uste baitu. Eta ez dago modurik ergela bere ergelkeriatik ateratzeko. Ergela bizi guzira baina baita ergel. Horregatik esaten zuten Anatole Francek ergel gaiztoa baino okerragoa dela. Gaiztoak atsedean hartzen baitu tarteka; ergelak sekulan ez. Eta horregatik esaten dut nik beti, hagitx jende gaizto on guti ezagutu dudala, eta ergelak berriz ezin konta ahala.

## Lehen eta orain



## Albizturko plazaren garapena azken 20 urteetan

Tolosaldeko eta Leitzaldeko **HITZA**n jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
**DOAN** agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZAk Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

**902 402 900**  
zerbitzu iraunkorra

**BULEGOAK:** Andoain · Donostia (Bellatokia)  
Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia)  
Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala  
Tolosa (Bellatokia)

## G Gutunak

### AHTrik ez! Kapitalismorik ez! Sozialismoaren alde!

Orain zientzian, teknologian, industrian eta nekazaritzan dagoen mailarekin edozer gauza egin dezakegu. Hau da, egungo garaian, gizateriaren paradoxa handia: sistema kapitalistan produkzio indarrak izugarri garatu diren bitartean, munduko populazioaren gehiengoarentzat kapitalismoa benetako infernua da. Gosea, pobrezia, gaixotasunak, gerrak, zapalkuntza nazionala, eskubide demokratikoaren murrizketa, errepresioa, natur baliabideen gehiegizko explotazioa eta herriensakeoa, kutsadura, klima aldaketa, prekaritate, lan istripuak, genero indarkeria... kapitalismoaren ondorio dira. Egunerok, kapitalismoan milaka lagun hiltzen dira eta Kapitalismoak planetaren bizitza bera ere mehatxatu egiten du.

Kapitalisten interesak defendatzen dituzten PP, PNV, UPN, EA eta PSOEn alderdietako ordezkari politikoak, AHTren alde egiten dute. AHTren proiektua, modernitatearen eta aurrerapenaren ikur bezala saldu digute. Jasangarritasunaren mozorroa ere jantzi diote eta ekonomiarentzat azpiegitura estrategikoa dela esanez zi-

ria sartu nahi izan digute. Orain, ekonomiaren krisiari aurre egiteko ezinbesteko tresna dela esango digute. Eta horrela izango da bai, banketxeentzat eta, eraikuntzaren, garraioaren eta energiaren enpresaburuen poltsikoentzat. Al-diz, Euskal Herriko langile eta herri sektoreen gehiengoak zuzen ikusi du ez duela AHTrik nahi. AHTren egitasmoak kalte ekologiko, ekonomiko, sozial eta kultural larriak eragingo bailituzke. Eta AHTren inposaketa errefusatu du.

Kapitalistek guztiarekin negoziatioa egin behar dute: negoziatio mugitu, jan edo jantzi behar dugunean; negoziatio gauzak garraiatu behar direnean; negoziatio ikasi edo ondo pasa nahi dugunean. Arazoa kapitalistak dira. Sistema kapitalistak gutxiengo baten irabazi maximoaren legea du motore eta ez herritar xehearren gehiengoaren beharrak asetzera. Ekonomia langileen eskuetan eta kontrolpean jartzea ezinbestekoa da hau planifikatu ahal izateko. Horrela soilik konpondu ahal dira egungo arazok eta gazidiak aurrera egin dezaten dute. Maila guztietan, ezegonkortasuna da egungo garaia ezaugarri nagusia eta mobilizazioak eta grebak zabalitzen ari dira. Eta honetan, ekonomiaren krisiak ere, langileengan lan eta bizi baldintza

larriagoak eragingo ditu. Borroka da bidea. AHTren aurkako borroka, kapitalismoaren ondorioen aurkako beste borroka guztietan eta jendartearen eraldaketa sozialistaren aldeko borrokarik lotuta egon behar du. Horrela, garaipena lortuko dugu.

Kapitalismoarekin bukatu behar dugu. Sozialismoa ala hondamendia! Langile, ikasle... egin borroka sozialismoaren alde! AHTrik ez!

Guztiagatik, maiatzaren 31ean, larunbata, AHTren aurka denok Donostia!

**Manu Odriozola.** Euskal Herria Sozialista aldiizkariko kidea.

### Gerontologiko berriaren kalitateari buruz

Tolosako alkateak postuan urte bat betetzeagatik DVk eginko bi orrialde osotako erregalaon idatzitako artikulua irakurri eta gero, hurrungo hau idaztera bultzatu gaitu.

Honekin, gure helburua, Hitler-en, propagandarako minstroak esan ohi zuena ekiditea da: maiz errepikatutako gezurra egia bihurtu ohi da, defendatzen ez den egia, egizitateari uzten dion artean.

Aurreko asteburuan, DVk eginko oparian, alkateak zera zioen:

«Gerontologiko berriaren kalitatea, Euskal Herri plazan zegoena-rena baino hobea izango da».

Guk berriro, askotan esan izan duguna errepikatuko dugu, hemen eta edonon: 10 pezetakin, 7 pezetakin baino zerbitzu hobea eman daitekeela. Etorkizunean gertatutakoak utziko dute agerian, berriro ere, norik duen arrazoiak, gerontologikoaren gaiarekin bestetan ere nabarmen gelditu den moduan.

Esandakoak sinesgarritasun izupire bat izango luke, EUDELeke lehendakari denak, eskumena berea izanda, gerontologikoaren kasuan bezela, udaletxeen explotazioak azpi kontratuko balitu. Alkateta eta zinegotzi postuak subkontratuaz, gainantzeko empresa pribatu guztiei dagokien moduan, negoziarioaren %30a eman.

Hala izanda ere, zentzuak eta esperientziak argi utzi izan dute, 10ekin 7rekin baino gauza obreak egin daitezkeela. Laburbilduz, herri honetan, beste horrenbeste zerbitzuen pribatizazioarekin (kiroldegia, ura, zaborra, hilherria,...) gertatzen hari den moduan, herriarrok hauetako zerbitzu bakoitzeko ordaintzen dugun %30a.

**Manu Leunda.** Zahartzaro duina plataformaren izenean.

## Lasaitasuna nagusi baina salmenta kopurua ona izan da azokan

**Azoka** » Berrikuntza bezala lehenengo udaberriko porruak, ziza horiak eta lobeliak ikusi ahal izan ziren postuetan.

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna lasaia suertatu zen eguraldia zela eta. Lehenengo orduetan botatako euririk eragina izan zuen jendearengan eta giroa zertxobait lasaitu zuen.

Hori bai, goiza aurrera zihoala, giroa goraka egin zuen, eta eskaintza zabala zela eta, salmentak ez ziren bat ere makalak izan.

Zerrendan nobedade batzuk ikusi genituen. Aurtengo lehenengo udaberriko porruak, lehenengo ziza horiak perretxiko mahaietan, eta lehenengo lobeliak apaingarriko landareen postuetan.

### » ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA	Merk.	Gares.
<b>Landareak</b>		
Erromero	4,00	6,00
Xarbot	4,00	6,00
Lobelia	4,50	-

### BERTAKO PRODUKTUAK

Perretxikoak		
Ziza horia	20,00	-
Ziza	6,00	35
Onddo	21,00	30,00

Fruta		
Marrubia	4,00	-

Barazkiak		
Baba	3,00	4,00
Porruak	1,00	3,00
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Zainzuria	12,00	-

Gaztak		
Tolosako babarruna	10,00	12,
Ardigazta	14,00	18,00

PRODUKTU EKOLOGIKOAK		
Sagarra	2,00	3,00
Kalabaza	1,60	3,04
Tipula	1,75	2,00
Aza	2,50	3,00
Mermelada	3,00	3,60

## E Eztabaida

**Herrietako festak hasiak dira: Zer da herriko festetaz gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxi? Zer botatzen duzu faltan?**

■ **Ibarratar bat.** «Netzat nire herriko festek ez dute gehiegirik behar. Giroa. Hoixe da ezin duna faltatu. Ibarrako festak horren adibide majo bat die. Ez due ezer potentea eukitzen baina ezin da faltatu. Jende guztia etortzen da eta gustura asko gainera. Jendearen parte-hartzea da, beraz, falta ezin daitekeena. Eguraldia ere inportantea izaten da baina ezin denez kontrolatu ba... Portzierto, animatu denak lbararra, gutxi geratzen da ta. Ondo-ondo pasakodeu».

■ **Aitziber.** «Gurasoa naizen alde-tik inportantea iruditzen zait haurrentzako ekitaldiak egotea. Herri guztietan dezente zaintzen dute hau eta alde hortatik gustura egoten naiz. Helduagoak gauza gutxiagorekin ere moldatzen gara».

**Villabona: Amnistiaren aldeko mugimenduaren aurkako epaiketara: Julen Zelarain herritarra da auzipetuetako bat. Zer duzu esateko?**

■ «lada ez dakite zein eta zergatik epaitu. Amnistiaren aldeko mugimenduko estatuen errepresioa agerian utzi eta gobernuak beraiek beraien legea ez dutela be-

tetzen erakusten digute. Gobernuen indarkeria eta eskrupulu eza erakusten dizkigute eta sufritzen ari direnei elkartasuna erakusten die, ez dute besterik egiten. Gaur egun ordea estatuari kritika bat egitea ere delitua da. Justiziarik ez dago, injustizia da garaile. Aupa zuek, eutsi goiari!

■ «Zer dudan esateko? Ba bost axola didala.»

■ «Nola bost axola zaizula? bihotzik ba al duzun galdetu al diozu zure buruari? zer kalte egin dizu Julenek? nori egin dio kalte? zergatik nahi duzu bera eta bere familia eta inguruak zigor ditzaten? axolagabea zara, baina ziurren bizi zake arlo guztietan.»

■ Aupa Julen eta oraindik giza es-

kubideak defendatzeko prest zaituten guztiok! zuek duzue bai adorea gaur egun nola zigortzen duten ikusita ere! ez dugu inoiz etsiko! adierazpen askatasuna herriarentzat!

■ «Ni ere zuek bezain euskalduna naiz eta iruditzen zait legez kanpo lanean dauden epaitu behar direla. Honekin ez dut esan nahi AAMk ezer txarririk egin duenik baina biolentzia ez bada ona alde batetik ez da bai izango ona beste-tik, ezta? Ez bageude ados ez gaudede ados inoiz. Hala biolentzia mota batzuk kondenatu eta besteak ez? Hori ez da egiten».

■ «Aurrekoari erantzunez, noski ezetz. Baina egoera zaila dela aitortu behar da, ezta?»



## très Bonn.

Très Bonn hitz gutxitan Citroën C4 berria zer den azaltzeko modua da. Xehetasun txikiena ere ondo zaindutako dotoretasun eta teknologiaren arteko nahasketa da. Benetako luxua denaren adierazpena: kallitatea guztiaren gainetik. Auto handia: ongi pentsatua, ongi egina... Frantziar izpirituaren onena benetako berrikuntzaren izaerari lotuta. Bi hitzetan: Très Bonn

**CITROËN C5 BERRIA. ALEMANIAR NORTASUNA. FRANTZIAR IZPIRITUA.**

**CITROËN C5 BERRIA**

ZATOZ IKUSTERA: **IROVI, S.A.**

Citroën Konzesionario Ofiziala  
Industrialdea z/g. • Anoeta / Tolosa  
Tel.: 943 65 18 42





## Loatzoren dultzain doinuak herrian

**ZIZURKIL** • Loatzo Musika Eskolako dultzaina ikasleen kalejira egin zen atzo *Maiatzak Saltsan!* ekimenaren barnean. 11:30etik aurrera herriko plazatik irten ziren eta herrian barrena dultzaina astintzen ibili ziren, giroa alaituz. *Maiatzak Saltsan!*-en hurrengo ekitaldia maiatzaren 28an, asteazkenarekin, egingo dute. Hain zuzen ere, arpa kontzertua eskainiko dute Oihane eta Juan Kruz Igerabidek, 15:15ean Otaño Ikastetxean, bere 25. urteurrenaren ospakizunen barnean. ASIER IMAZ



## Mutxikoaren pausoak ikasten

**IBARRA** • Alurr dantza taldeak Dantza eta Mutxikoaren Eguna antolatu du maiatzaren 31n Ibarren. Bertan herri ezberdinetako 350 dantzari elkartu nahi dituzte antolatzaileek, baina horietaz gain, herritarren parte-hartzea bultzatu eta bilatzen du Alurrek. Horretarako, herritarren artean Mutxiko Dantzaren pausoak irakasteko, ikastaroak antolatu zituen atzo. Jende ugari elkartu zen ikastaroetan Lapurditik ekarritako irakaslearen irakatsiak ikasteko. Hurrengo larunbatean ikusi beharko dira emaitzak. A. IMAZ

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Zaintzailea.** Hiru haur zaintzeko pertsona behar da Anoetan. 659 98 16 87.

■ **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona behar dugu. 685 22 70 58.

■ **Zaintzailea.** Bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko emakumea behar da. 627 46 58 10.

■ **Teknikaria.** Laskorain Ikastolako Haur Hezkuntzan Goi-Mailako teknikariak behar ditu. Derrigorrezkoa da EGA edo bere baliozko izatea. Esperientzia baloratu-

ko da. Curriculumak e-mailez bidali behar dira tolosa@ikastola.net helbidera. Azken eguna, maiatzaren 29a.

### SALGAI

■ **Garajea.** Alegiko kalean, 25m<sup>2</sup>-ko garaje itxia. Gauean entreplan-ta dauka. 606 80 22 14.

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai Tolosako Alde Zaharrean. Merkea. Obra egin behar da. Interesatuak deitu ondorengo zenbakira: 657 23 00 11/634 91 94 82.



Lizartzako haurrek mendi irteera egin zuten Aste Kulturalaren barnean. Ondoren jolasak ere izan zituzten. ASIER IMAZ

# Leitzan, Lizartzan eta Albizturren gaur amaituko dira kultur asteak

**Kultura** » Euria lagun izan bazuten ere atzo ekitaldi jendetsuak ospatu zituzten hiru herrietan, batez ere Leitzan eta Albizturren.

### ASIER IMAZ

Bi eskualdeetan kultur asteak ospatu ziren atzokoan, Leitzan, Lizartza eta Albizturren alegia. Eguraldia tarteka lagun, tarteka etsai izan zuten atzokoan.

Hiru herri hauetangaur amaituko dituzte kultur asteak, hainbat ekitaldirekin.

### Lizartzan gaur Helduen Eguna

Atzo Lizartzan mendi irteera egin zuten eta gaur Helduen Eguna ospatuko dute. Hamaiketakoaren ostean 12:30ean Otsolar dantza taldearen emanaldia egongo da. 14:00etan helduek bazkaria egingo dute eta 18:00etan Lizartza eta Gazteluren arteko herri kirol lehia ikusteko aukera egongo da.

### Leitzan Xiba jokoak

Euskal Herrien arteko euskal jokoan V. jaialdiaren Nafarroa Garaiko kanporaketa jokatu zen atzo Leitzan. Izerdia atera ondoren ziklo jatea egin zuten 140 lagunek. 19:00etan berriz Raul del Torok eta bere ikasleek organo kontzertua eskaini zuten.

Gaur Artisau Azoka eta Eho-ziri topaketa egongo dira goiz eta arratsaldean. 19:30ean berriz Katamalo taldeak kontzertua eskainiko du.

### Albizturren paella jatea

150 lagun elkartu ziren atzo paella jatea egiteko Albizturren. Ondoren Inde Kitxen taldeak kontzertua eskaini zuen. Gaur herriko mugak ezagutuko dituzte 08:00etan.



Leitzan Euskal Jokoen V. Jaialdia egin zuten. NAIARA GARZIA



Albizturren herrian egindako paella jan zuten 150 lagunek. NAIARA GARZIA



Txikienek ponyekin eta zezentxoekin ederki pasatu zuten herriko plazan. A. IMAZ



Gimnastika erritmikako dantzari guztiak, pilotalekuan. N. GARZIA



Judoan txikiak aritu ziren eta hainbat ariketa egin zituzten. N. GARZIA

## Herriko jaien azken orduak

**Anoeta** » Atzo Gazteen Eguna ospatu zuten ekitaldi ugariarekin eta gaur amaituko dira aurtengo festak, Elustondotarren emanaldiarekin.

**NAIARA GARZIA**

19:30etik aurrera Elustondo anai-arrebek eskainiko duten emanaldiarekin amaituko dira gaur Anoetako aurtengo festak, baina atzoko eguna ere ederki aprobetxatu zuten anoetarrek, gazteek, batik bat,

Gazteen Eguna izan baitzen. Hori dela eta, 11:00etatik aurrera zezentxoak eta ponyak izan ziren plazan txikienean gozamenarako. 12:15ean buruhandi eta erraldoien kalejira egin zuten eta 12:30etik 14:00a bitarte eta 18:30etik 20:00ak arte

udaletxean hainbat erakusketa egon ziren ikusgai. Gaur ere ikusgai egongo dira ordu berean, herriko artisten lanak, eskulanetako taldeak egindakoak eta festetako kartel lehiaketan aurkeztutako lanak.

Arratsaldean ere festak jarraitu egin zuten, besteak beste, mus txapelketa herrikoiaekin eta infantil mailako txirindulari lasterketarekin. 17:30ean kiroldegian egin zuten judo eta gimnastika erritmikako emanaldia oso arrakastatsua

izan zen, kiroldegia erabat bete baitzen eta emanaldian aritu zirenak ere giro ederra sortu zuten.

Trikitixa eskuan hartuta, euria ari zuen arren, 18:00etan gazteen kalejira egin zuten kiroldegitik abiatuta eta afalurrean, sagardo dastaketa, eta txorixo eta gazta pintxoekin.

Imuntzo ta Beloki erromeri taldeak eman zion amaiera aurtengo festetako azkenaurreko egunari.

Gaur, berriz, musika eta kirola

izango dira nagusi Anoetako kale-etan, abesbatzak, txistulariak, paleta txapelketa eta herri kirolak izango baitira.

**Gaur, azken eguna**

Meza Nagusian Gurea abesbatzak emanaldia eskainiko du, 11:30etik aurrera paleta txapelketako finalak izango dira. Arratsaldean, herri kirolak egingo dituzte eta Elustondo anai-arrebekin amaituko dira festak.

## Pilota eta saskibaloia, Kirol Astearen baitan

**Alegia** » Zaparrada ederra bota zuen arren, saskibaloia txapelketa ez zen bertan behera gelditu Alegiako Kirol Astearen.

**N. GARZIA**

Atzo IV. Kirol Astearen barruan urtero bezala ginkana prestatu zuten umeentzat, eta goizean eguraldi hobexegoa egin zenez, lasai aritu ziren umeak jolasean.

Arratsaldean, 16:00etatik aurrera 2 kiroletan aritu beharrak ziren Alegian, pilotan eta saskibaloian. Pilotan orotara 9 partida jokatu zituzten, pilotariak ordea zorrea izan zuten, herriko pilotalekuan



Ederki busti ziren saskibaloian aritu ziren herritarrek. N. GARZIA

jokatu baitzuten, aterpean, beraz eta ez ziren busti.

Larraitz auzoko plazan saskibaloian aritu zirenek ez zuten, ordea,

horrelako zorterik izan eta ederki busti ziren, baloiak nekez botatzen zuten lurrean. Txapelketa ez zen bertan behera gelditu.

21:00etan Intxurre KKEk aurtengo denboraldi amaierako festa ospatu zuten herriko plazan. Ber-

tan, sariak ere banatu zituzten futbol eta areto futbol taldeko jokalariei artean.



### SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRAREN LAN ESKAINTZA

Soziolinguintika Klusterra administratzaile baten bila dabil, **GARATU BEHARREKO LANAK:**  
- Administratzaile lanari lotuta ondorengo lan nagusiak garatu beharko ditu: kontabilitatea eraman, dirulaguntzen kudeaketa, aurrekontuaren kudeaketa, ordainketa-kobraketen kontrola...  
**ONARRIZKO BALDINTZAK:**  
- Administratzaile lanean esperientzia izatea  
- Euskara maila ona izatea

**BALORATUKO DA:**  
- Lan taldean aritzeko gaitasuna  
- Oinarrizko programak erabiltzeko gaitasuna  
**LAN BALDINTZAK:**  
- Egun erdiko kontratua  
**LAN-TOKIA:**  
- Andoain, Martin Ugalde Kultur Parkea  
**EPEALDIA:**  
- Berehala hasi eta 6 hilabeteko probaldia, Ondoren kontratua luzatzeko aukera izango du

**PROPOSAMENAK AURKEZTEKO:**

Bidali Curriculum-a  
Epe muga: 2008ko ekainaren 2ra bitartean  
Nora bidali: [iker@soziolinguintika.org](mailto:iker@soziolinguintika.org) edo Soziolinguintika Klusterra - Martin Ugalde Kultur Parkea - 20140 Andoain



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibaralde@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Irteerak

■ **Urkizu.** Urkizutik Mendikutera irteera antolatuta du auzo elkarteak, 09:00etan plazatik abiatuta. Kobazuloa bisitatu eta Urkizun bueltan, ezustekoa.

### Deialdiak

■ **Izaskun.** Duela gutxi hil den Javier Ugarte Goterasi omenaldia egingo diote: 11:00etan bere errautsak zabalduko dituzte Uzturrien eta gero herri bazkaria Izaskunen.

■ **Orendain.** Korputz Eguna: 11:00etako meza nagusiaren ondoren, 12:00ak aldera, Santa Maria parrokiatik Korpus Kristi eguneko prozesioa aterako da Alde Zaharreko kaleetan zehar: lehen jaunartzea egin duten haurrak, Tolosako Musika Banda, parrokiako abesbatza eta orkestra...

■ **Tolosa.** Afari turkiarra Fronton jatetxean hilaren 28an 21:00etan. Gonbidatua: Omar Faruk Tekbilek. Sukru Karakusen margoak zozketatu dituzte. Sabel dantza. Txartelak 35 eurotan eskura daitezke Fronton jatetxean eta Saikin eta Egoki tabernetan.

### Musika

■ **Ikaztegieta.** Asmube eta Gehitu abesbatzen emanaldiak elizan,

## A Agurrak



### Urte askoan!

**Nerea Irazusta Aristi (Alegia).**  
Bihar 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak  
jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa



### Urte askoan!

**Zorionak Ekiñe!** Bihar urteak. Muxutxoak aita eta amaren partetik.

12:00etan. Oso talde interesgarriak, eta egitarau oparo eta anitza, abesbatzek osatzen duten kideek bezala.

### Antzerkia

■ **Tolosa.** Maite Merinoren konpainiak *Los monólogos de la vagina* (Alu jakintsuen mintzoak) bakarriketa eskainiko du Leidor aretoan 20:30ean Monologoka programaren barruan. Sarrerak Kutxan-en.

### Zinema

■ **Villabona.** Expediente Anwar filma emango dute Gurea aretoan. gaur, 20:00etan; eta bihar, 21:30ean izango dira emanaldiak. Haurtzako *Winkiren zaldia* emango dute, gaur, 18:00etan Gurean.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK GAUR

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.  
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.  
**BIHAR**  
■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.  
■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



ASTE BERDEA 08

Izen-ematea eta informazio  
gehiago: 619770408  
Epea: maiatzak 28

Ekainak 5ean, Aduna, Anoeta, Asteasu, Irura, Villabona eta Zizurkilgo herritarrentzat, EkoCenterra bisita gidatua (doan), 10:00etatik 12:00etara. Belartzako Emaus Fundazioaren Ekocenterra ezagutzeko aukera paregabea. Bisita gidatua eta, kartoia erabiliz, aukeri bat egiteko tailer dibertigarria. Belartzara autobusean joango gara:

ANOETA	Farmazia aurreko autobus geltokian	9:05
IRURA	Trinketean	9:10
VILLABONA	Elizaren aurreko autobus geltokian	9:20
ZIZURKIL BEHEA	Pasus Plaza	9:25
ASTEASU	Herriko plaza	9:30
ZIZURKIL GOIA	Pedro M <sup>a</sup> Otaño Plaza	9:40
ADUNA	Autobus geltokian	9:50



txokoa **h**

## 2 sarrera pare

Tolosako  
Leidorren

### irabazleak:

- Leire Olasagasti (Villabona)
- Mertxe Saralegi (Tolosa)

Igandea, maiatzak 25 ◦ 20:00etan



HITZAren harpidedunentzat abantailak

sarrerak leihatilan bertan izango dituzue.